



Ebazpena, 2026ko ekainaren 17koa, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten duten ikasleek erabili beharreko material didaktikoen eta curriculuma garatzeko baliabideen laguntza-programari buruzkoa.

2015-2016 ikasturtean, Hezkuntza Saila eskola-materialak kudeatzeko eredu berri bat garatzen hasi zen, ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak zein egoera errespetatuz eta, epe jakin batean, ikasleek Oinarrizko Irakaskuntzaren curriculumean oinarrizko gaitasunak eskuratzea lortzeko.

Zenbait ikasturte geroago, curriculum berriaren ondorioz (77/2023 Dekretua), Hezkuntza Saileko Programak, material didaktikoa eta curriculuma garatzeko baliabideei laguntzeko denak, gero eta material kurrikular digital gehiago sortzeko zein erabiltzeko balio behar du, inprimatutako curriculum-materialaren erabilerarekin uztartuko dena eta euskararen presentzia sustatu eta bermatuko duena eduki digitaletan zein erabilera orokorreko hezkuntza-plataformetan.

Indarrean dauden curriculum-dekretuek ikasleen irteera-profila jasotzen dute hezkuntza-etapa bakoitzean, eta hezkuntza arloan eskumena duen sailak ikasleen irteera-profila ezarri du, Oinarrizko Hezkuntza nahiz Batxilergoa amaitzean.

Funtsezko kompetentzien eta XXI. mendeko erronken arteko loturak zentzua emango die ikaskuntzei, eskola eguneroko bizitzaren egoera, gai zein arazo errealetara hurbiltzean; horrek, aldi berean, beharrezko laguntza-puntua emango du ikaskuntza-egoera esanguratsuak eta garrantzitsuak bultzatzeko, bai ikasleentzat, bai irakasleentzat.

Era berean, Euskal Eskola Publikoaren I. Plan Estrategikoak bere lehentasunen artean ezartzen du kalitatezko irakaskuntza ekitatibo eta inklusiboa indartzea, lidergo pedagogikoan eta ikastetxeen autonomian oinarrituta. Esparru horretan, curriculuma garatzeko material didaktikoak eta baliabideak aukeratzeak eta erabiltzeak ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektutik eratorritako premiei erantzun behar die, eta ikasleen kompetentziak garatzen lagundu behar du, metodologia aktiboak, inklusioa, eleaniztasuna, kompetentzia digitala eta hezkuntza-baliabideen erabilera arduratsua eta jasangarria bultzatuz.

Beraz, material didaktikoen zein curriculuma garatzeko baliabideek zenbait ezaugarri eta baldintza bete behar dituzte ikasleen irteera-profilean zehaztutako funtsezko kompetentziak lortzeko. Hori dela-eta, honako hau gogoratzea komeni da:

a) Material didaktikoak dira ikasleei zein irakasleei irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen plangintza, garapena eta ebaluazioa egiten laguntzeko lantzen diren mota guztietako materialak. Ikasmaterialak malgutasunez erabili behar dira; izan ere, helburua da eskolako ingurune zein testuinguruaren baldintzetara eta ikasleen ezaugarrietara egokitzea.

b) Material didaktikoen bat etorri behar dute Hezkuntza Proiektuan proposatutako hezkuntza-eredu pedagogikoarekin.

c) Material didaktikoak editatzeko zein aukeratzeko ez da Hezkuntza Sailaren baimenik behar; nolahi ere, material horien zorrotasun zientifikoak eta hizkuntzak ikasleen adinarekin zein curriculumarekin bat etorri behar dute. Horrez gain, lege-ordenamenduko printzipioak, balioak, askatasunak eta betebeharrak islatu zein sustatu behar dituzte, baita diseinu unibertsalaren zein irisgarritasunaren ezaugarriak bete ere.

d) Arautegiari jarraituz, ikastetxeek curriculumaren garapenerako materialak eta baliabideak sortzeko eta hautatzeko autonomia dute. Dena dela, irisgarriak izan behar dute, aniztasun funtzionalari erantzun egokirik eman ahal izateko.

e) Ikasgai bakoitzaren curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak askotarikoak izan daitezke, tradizionalak zein hainbat euskarri duten material berritzaileak; edonola ere, ikasleen artean mota eta jatorri askotako iturrien bilaketa kritikoa sustatzeko balio behar dute. Dagoeneko material zein baliabide digitalak ezinbestekoak dira ikastetxeetan; ondorioz, irakaskuntza-jarduera arruntaren parte izan behar dute.

f) Erabiltzen diren material didaktikoetan, hezkidetzaz-helburuak azaltzeaz gain, ez da hizkuntza sexistarik erabiliko, eta, irudietan, emakumeen zein gizonen presentzia orekatua, estereotipatu gabekoa, bermatuko da. Dena dela, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (EHAA, 60. zk.), emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, debekatzen du pertsonen duintasuna sexu joeraren arabera neurtu edo sexu-objektu soilak direla adierazten duten testu-liburuak nahiz material didaktikoak zabaltzea eta erabiltzea. Beste horrenbeste emakumeenganako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten materialekin. Bestalde, aniztasun familiarra eta afektibo-sexuala gainerako errealitate kultural zein etnikoekin agertu behar dira.

g) Ikastetxe publikoetako Pedagogia Koordinaziorako Batzordeari dagokio irizpide pedagogikoak ezartzea irakaskuntzen garapenerako erabili behar diren material zein baliabide kurrikularrak zehazteko.

h) Hezkuntza Sailak plataforma digital batzuk garatu ditu hezkuntza-komunitate osoari eskaintzeko, jabetza intelektualaren arautegia betez. Plataforma horietako materialak eta baliabideak honako irizpide hauen arabera hautatuko dira: kalitate metodologikoa; estandar irekiak; hedatu, egokitu, berrerabili zein birbanatu ahal diren iturrien eskuragarritasuna.

Era berean, baliabide eta plataforma digitalen hautaketan segurtasuna, datu pertsonalen babesa eta pribatasuna bermatuko dituzten irizpideak kontuan hartu beharko dira, eta balioa ematen duten tresnak eta proposamenak lehenetsiko dira, Hezkuntza Sailak sustatzen duen burujabetza digitalaren ikuspegiarekin bat etorriz.

i) Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ikastetxeek, beren autonomia pedagogikoa erabiliz, curriculuma garatzeko aukeratutako materialak ikuskatzea, ikaskuntza zein irakaskuntzarako erabiltzen diren elementu guztiak ikuskatzeko ohiko prozesuaren barruan.

Aurrekoarekin bat egiteko, 2026-2027 ikasturtean, honako jarraibideak bete behar dira:

1.- LEGE-OINARRIAK.

Programak oinarri hauek izango ditu: ebazpen hau eta Hezkuntza Sailak Programa hau kudeatzeko zein garatzeko sortuko dituen aginduak.

Gainontzeko arau aplikagarriak betetzeari utzi gabe, batez ere, honako araudi hauek beteko dira:

- 196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzako kudeaketaren erregimena arautzeko dena (apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatzen dena).
- 2006ko urriaren 18ko Agindua, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, ikastetxeetako aurrekontuen sarreraren eta gastuen egoera-orriak banakatzen dituen, eta eranskinen osaera eguneratzen diona uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuari, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzako kudeaketaren erregimena arautzekoari.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzkoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
- Euskal Eskola Publikoaren I. Plan Estrategikoa 2025-2028, Euskal Eskola Publikoa indartzeko eta eraldatzeko erreferentzia-esparru gisa. Horrela, ebazpena lotuta geratzen da legegintzaldiko hezkuntza-politikako tresna nagusietako batekin, eta mezu hau indartzen du: materialak ez dira berez helburu bat, baizik eta hezkuntza-proiektuaren eta Euskal Eskola Publikoaren lehentasun estrategikoen zerbitzura dagoen baliabide bat.

Era berean, Programa hau Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lotzen da, zehazki, honako helburu hauekin: kalitatezko hezkuntza (4. helburua), genero-berdintasuna (5. helburua) eta kontsumo zein ekoizpen arduratsua (12. helburua).

2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Programaren xedeak dira zentroen parte-hartzeko oinarriak ezartzea eta zentroek erabiltzen dituzten material didaktikoak zein curriculuma garatzeko baliabideak, euskarri inprimatuan edo digitalean, diruz laguntzea, baita horiei lotutako lizentzia digitalak finantzatzea ere. Material horiek guztiek, irakaskuntza- zein ikaskuntza-prozesuak planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko orduan, ikasleei zein irakasleei laguntzeko izango dira.

2026-2027 ikasturtean, Lehen Hezkuntza zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailak ematen dituzten Eusko Jaurlaritzaren titulartasuneko ikastetxe publiko guztiak sartu ahalko dira Programan.

Programa hiru lerroren bidez finantzatuko da:

- a) Inprimatutako materiala berrerabiltzea.
- b) Material didaktikoa eskuratzea, edozein formatutan.
- c) Erabilpen orokorreko curriculum-materiala, edozein formatutan.

3.- MATERIALAK ETA BALIABIDEAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK.

Material didaktikoak eta curriculuma garatzeko baliabideak ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin eta Euskal Eskola Publikoaren I. Plan Estrategikoan jasotako lehentasunekin bat etorri zehaztu beharko dira, ikasleen premiak eta ikastetxeak bere autonomia baliatuz hartutako erabaki pedagogikoak kontuan hartuta.

Material didaktikoa eta curriculuma garatzeko baliabideak inprimatuak edo edizio digitalekoak izan daitezke.

3.1. Inprimatutako material didaktikotzat hartzen dira ikasleek erabiliko dituzten curriculum-garapeneko baliabideak, hau da, indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkideko araudian ezarritako curriculum osorik garatzen dutenak hezkuntza-maila, -ziklo edo -etapa bikoitzarako aurreikusitako alorrean, gaian, moduluan edo arloan.

Ez dira material didaktiko inprimatutzat hartuko testu-liburuei lotutako baliabideak, baldin eta, beren izaeragatik, ikasleek hurrengo ikasturteetan ezin izango badituzte berrerabili.

Inprimatutako material didaktikoak ez du manipulazioa dakarren ikasleen lan pertsonalerako atalik izango, ezta haietan idazteko edo marrazteko berriazko tarterik ere, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko Lehen zein Bigarren mailetarako direnak izan ezik.

3.2. Edizio digitaleko material didaktikoa ikastetxeetan instalatutako softwarera egokituko da, horrela, ikastetxeetan dauden informazio-teknologiekin bateragarria dela bermatuko da. Online banatutako formatu digitaleko material didaktikoek laguntza-materiala izan beharko dute, Internetarako konexiorik gabe lan egiteko aukera emango duena, ikasleek arlo, gai, esparru edo modulu bakoitzerako ezarritako curriculumeko jarduerak gara ditzaten.

Atal honetan sartzten dira ikaskuntza-plataforma birtualak.

Pedagogia Koordinaziorako Batzordeak irizpide pedagogikoak ezarriko ditu, ikastetxeak ematen dituen irakaskuntzak garatzeko erabili behar diren curriculum-garapeneko materialak eta baliabideak zehazteko.

Material guztiek EAEn indarrean dagoen curriculum-araudian xedatutakora egokituta egon beharko dute, eta egiletza- zein edizio-eskubideak errespetatu beharko dituzte. Horren harira, jabetza intelektualaren arautegia betez, erreproduzio orok jabearen berriazko baimena duela zainduko da.

Material eta baliabide digitalen hautaketak ikaskuntza-prozesuen hobekuntza izan beharko du helburu, eta haien erabilerak ikasleen garapen konpetentzian duen eragin positiboan oinarritu beharko du. Horrenbestez, material digitalen erabilera ez da berez helburu bat, baizik eta kalitatezko ikaskuntza-esperientziak ahalbidetzeko tresna bat.

Ildo horretan, ikastetxeek, beren autonomia pedagogikoaren esparruan, erabilitako material eta baliabideen egokitasuna aldi-aldi aztertu eta ebaluatuko dute, ikaskuntzan duten eragina, ikasleen ongizate digitala eta hezkuntza-proiektuekin duten koherentzia kontuan hartuta. Horretarako, erreferentziako esparru gisa hartuko dira Hezkuntza Sailaren Adimen Digitala 2025-2029 Planean jasotako printzipioak eta orientabideak, zeinek pertsonen ongizatea, erabilera arduratsua, segurtasuna, ekitatea eta teknologia digitalen erabileraren bidez ikaskuntza-prozesuen hobekuntza lehenesten baitituzte.

4.- PROGRAMAREN KUDEAKETA.

Ikastetxeak berak kudeatuko du Programa, «**material didaktikoen eta curriculumak garatzeko baliabideen kudeaketa**» kontzeptuaren pean. Programa ikastetxearen urteko kudeaketa-planean sartuko da, ikastetxe publikoek kudeaketarako duten autonomia markoaren barruan.

Ikastetxeko Eskola Kontseiluari (EK) dagokio:

- 1) Programaren antolaketarako eta funtzionamendurako ildoak onestea.
- 2) Programaren funtzionamendurako arautegia onestea, ikastetxearen antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiaren parte izatera pasako dena.
- 3) Programaren funtzionamendua ikuskatzea.
- 4) Programaren kudeaketa ekonomikoa egitea: material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak erabiltzeagatik egiten den ekarpena ordaintzeko modua onartzea, indarreko legerian ezartzen diren modalitateekin bat etorriz.
- 5) Ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituen material didaktikoen eta curriculumak garatzeko baliabideen berri ematea senitartekoei.
- 6) Ebazpen honen xede diren material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea.
- 7) Programaz arduratuko den ikastetxeko batzordearen sorrera onartzea.
- 8) Programa behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren bestelako funtzioak eta indarreko legeriak agintzen dizkionak bere gain hartzea.

Programaz arduratzen den ikastetxeko batzordeak honako kide hauek izango ditu, gutxienez:

- a) Eskola Kontseiluko presidentea edo hori eskuordetzen duen beste edozein pertsona.
- b) Ikastetxeko idazkaria; batzordeko idazkari-lanak beteko ditu.

- c) Ikasleen gurasoen bi ordezkari. Horietako batek Eskola Kontseiluko kidea izan behar du, eta organo horrek proposatuta aukeratu behar da. Aldiz, bestea Ikasleen Gurasoen Elkarateak proposatuta aukeratu behar da.
- d) Lehen Hezkuntzako ziklo-koordinatzaileak eta Bigarren Hezkuntzakoak ere.

Hauek dira ikastetxeko batzordearen funtzioak:

- a. Eskola Kontseiluari bidaltzea Pedagogia Koordinaziorako Batzordeak egindako proposamena ikastetxeak maila bakoitzean erabiliko dituen eta agindu honen xede diren material didaktikoekin eta curriculumak garatzeko baliabideekin.
- b. Agindu honen xede diren material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea. Guraso-elkarateak hala eskatzen badu, Batzordeak horren esku utz dezake aipatutako prozeduraz arduratzea.
- c. Familiei emango zaien material didaktikoen eta curriculumak garatzeko baliabideen zerrenda gainbegiratzea.
- d. Materialak eta baliabideak erabiltzeagatik familiek egin ditzaketen ekarpenen harira indarreko legerian ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea.
- e. Uko egite indibidualak jasotzea.
- f. Programaren helburuak betetzea, ebaluatzea eta Eskola Kontseiluari hobekuntzak proposatzea.
- g. Programaren materialak zein baliabideak babesteko, zaintzeko, erregistratzeko, identifikatzeko eta urtero berrikusteko prozedura zehaztea.
- h. Ez badira materialak zein baliabideak itzultzen, edo ezin badira berrerabili, ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu, haiek ordaintzeko eskatuko zaio arduradunari. Hori egiteko prozedura ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian jasoko da.
- i. Proposatu Eskola Kontseiluari, ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendu araudian jaso dezan, zein neurri hartuko diren arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez badu, hau da, materialak eta baliabideak itzultzen ez badira edo itzuli arren, ezin badira berrerabili, ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu.
- j. Indarreko legeria betez eta Programa garatzeko, Eskola Kontseiluari agintzen dion beste edozein funtzio.

5.- ERABILERA ETA ZAINTZA.

1.- Ikastetxeek honako hauek jasoko dituzte beren antolaketarako eta funtzionamendurako arautegian: ikasleen esku utzitako material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak erabiltzeko eta zaintzeko arauak; arduradunari dirua eskatzeko prozedura, material eta

baliabide horiek galtzen baditu, edo ezin badira berrerabili behar bezala zaindu ez dituelako edo hondatuta daudelako, baita hartuko diren neurriak arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez duenean ere.

2.- Berrerabil daitezkeen material didaktikoak eta curriculumak garatzeko baliabideak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitu ondoren, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berrerabiltzeko, ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean berrerabiltzeko moduan daudela egiaztatu ondoren; betiere ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.

6.- FINANTZIAZIOA 2026-2027 IKASTURTERAKO.

Honakoen bidez finantzatuko da Programa:

6.1.- Hezkuntza Sailaren ekarpena:

35 € Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzeko.

103 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle bakoitzeko.

Hezkuntza Sailak eman beharreko zenbatekoak aurre-matrikularen datuen arabera kalkulatu dira, eta 2026ko aurrekontu-ekitaldirako finkatutako aurrekontuaren muga kontuan hartuz. Benetako matrikula une honetan planifikatutakoa baino txikiagoa bada, ekarpenak gorantz aldatuko dira, aurrekontua gauzatzeko aukera ematen duen neurrian.

6.2.- Ikasle bakoitzaren ekarpena:

Programan parte hartzen duten ikasleek egin beharreko urteko banakako ekarpenak 2013ko uztailaren 10eko Aginduan ezarritakoak dira. Agindu horren bidez, Hezkuntza Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dira, eta nahitaez bildu behar dira.

Ikasleek urtero egin beharreko banakako ekarpenak honako hauek dira:

27 € Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

30 € Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

31 € Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

41 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

45 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailatan matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

Baliteke ikasturtean zehar ikasleren bat edo gehiago ikastetxea utzi eta beste batera joatea. Orduan, jatorrizko ikastetxeak ikasle horrek egindako ekarpenaren ordainagiria emango dio helmugako ikastetxean erakutsi dezan, eta, horrela, material berriak hartuko ditu ikastetxe horretan. Hezkuntza Sailak azken ikastetxe horri ordainduko dio ikasleari dagokion diru kopurua. Halaber, ikasturtearen amaieran, Hezkuntza Sailak kontuan hartuko ditu Programan egon diren aldeak ikasle-kopuruetan.

Zentroko Eskola Kontseiluak erabakiko du nola banatuko duen ikasleek eta Hezkuntza Sailak emandako kopuruen guztizko batura zentroan ematen diren irakaskuntza-mailen artean, baita horiei eskaintzen zaizkien material didaktikoek zein curriculumak garatzeko baliabideek dakarten gastuaren artean ere.

Egindako gastuaren zenbatekoak lehen aipatutako batura gaitutako balu, zentroko Eskola Kontseiluak ikertuko eta ezarriko lituzke zentroko ikasleen gaitasunak eta heziketa-proiektua garatzeko egokienak diren ordainketa formulak.

7.- FIDANTZAK DIRUTAN.

Finantzetako zuzendariaren 2011ko irailaren 23ko Ebazpenaren bidez (EHAA, 205 zbk.), Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariei eskuordetzan eman zaie Programa honi lotzen zaizkion zenbait eskumen, hala nola eskudirutan ordaindutako gordailuak gorde, kudeatu eta itzuli.

Ikastetxeetako Kudeaketa Ekonomikoaren Gidan ezarrita daude fidantzak biltzeko, kontabilizatzeko eta, behar izanez gero, dirua berreskuratzeko prozedurak.

8.- ESKURATZEKO PROZEDURA.

Ikasturtea hasi aurretik, ikasturtean zehar erabiliko diren material didaktikoen eta curriculumak garatzeko baliabideen zerrenda emango die ikastetxeak ikasleei; material horiek Eskola Kontseiluak zehaztutako saltokietan erosiko dira.

Materialak eta baliabideak aurrez adierazitako saltokietan edo hornitzaileetan jaso behar dira, ikastetxeko batzordeak ezarritako prozeduraren arabera.

Hondatutako materialaren zein baliabideen kasuetan, horiek berrezartzea ikastetxeari dagokio, baita berezko material didaktikoak ekoizteko beharrezkoak izango dituen materialak zein tresnak eskuratzea ere.

Ikastetxeak errespetatu beharko ditu ikastetxeen kontratazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioarako autonomia arautzen dituzten arauetan ezarritako prozedurak.

9.- KUDEAKETA EKONOMIKOA.

Programaren kudeaketa ekonomikoa ikastetxearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren pean egingo da, hurrengo legerian aipatutakoaren arabera: Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzeko den uztailaren 28ko 196/1998 Dekretua (baita aurrekoa aldatu zuen apirilaren 5eko 67/2005 Dekretua ere); 2006ko urriaren 18ko Agindua, ikastetxeetako aurrekontuen sarreraren eta gastuen egoera-orriak banakatzen dituen, eta eranskinen osaera eguneratzen diona uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuari.

Dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako Aurrekontuetarako Zerbitzuak erantzungo ditu Programaren inguruko diru kudeaketari buruzko zalantzak.

10.- EBALUAZIOA ETA KONTROLA.

Hezkuntza Sailak Programaren funtzionamendu administratiboa eta ekonomikoa ikuskatuko ditu, gai bakoitzeko organo eskudunen bidez. Horrez gain, Hezkuntza Ikuskaritzak bere eginkizunak gauzatu ditu.

Egindako erosketen fakturak eta egiaztagirak 2026-2027 ikasturtea amaitzen denetik gutxienez urtebetez gorde beharko dira, eta Hezkuntza Sailaren eskura egon beharko dira. Libramenduak egiten direnetik aipatutako epea igaro bitartean Hezkuntza Sailak egiaztapenak egingo ahal izango ditu ausazko laginketen bidez, funtsak behar bezala aplikatzen direla eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hezkuntza Sailburuordetzak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak emango ditu Agindu honetan ezarritakoa betetzeko.

Prestakuntza-ebaluazioaren eta kudeaketaren ikuspuntutik, Hezkuntza Sailburuordetzak Programa behar bezala garatzeko eta hobetzeko behar duen informazioa igortzeko eskatuko zaie zentroei; horregatik, ikastetxeek, 2026ko abenduaren 18a baino lehen, erositako materialari buruzko formularioa bete beharko dute. Aipatutako formularioa Herri Ikastetxeak aplikazioan egongo da eskuragarri, ikastetxe publikoei zuzendutako atarian (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>; «Herri-ikastetxeak/Deialdiak»).

11.- UKO EGITEAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

Ikasleren batek ez badu parte hartu nahi Programan, haren legezko ordezkariak ikastetxeari jakinarazi beharko dio. Horretarako, Ebazpen honen I. eranskina bete eta ikastetxean entregatu beharko du. **2026ko uztailaren 17a** baino lehen, ikastetxeak eranskin horiek erantsiko ditu ikastetxe publikoetarako atarian (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>; «Herri-ikastetxeak/Deialdiak»).

Ikasturte batez Programan parte hartzeak ez du urtebete baino gehiago egotera behartzen; hau da, ikasturte bakoitzean erabakiko da Programari uko egin ala ez. Beraz, uko egiteko eranskina urtero bete beharko da.

Programan parte hartzeari uko egiten dion ikasleak ezin izango ditu jaso Hezkuntza Sailak unibertsitarioak ez direnei ematen dizkien dirulaguntzak eskola materialerako. Aldiz, dirulaguntzen gainontzeko osagarriak jasotzeko aukera izan ahalko dute.

Ebazpen honetan araututako Programan parte hartzea bateragarria da helburu bera duen (hau da, materialak eta baliabideak eskuratzea) eta Hezkuntza Saila ez den beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin, laguntza horiek guztiek batuta ez badute ikasleak ordaindu beharrekoa gainditzen (ebazpenaren 6. atala).

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan

Lucia Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEA